

Aita Uriarteren lana eta Jokabidea

Uriartek egin dauena kopi-lana izan da. Ez dagiala iñok uste or Eusebio Mariaren orijinalak daukaguzanik. Eta olerkari orren lan guztien bilduma ez izanaz gaiñera, kopiatzailleak bere ikutuak egin deutsoz arek egiñikoari. Eta ez bakarrik ortografian. Aita Uriarteren kopian ez da agertuko Eusebio Mariaren ortografiak daukan ezaugarri oso ezagun bat, atxea jota ondoren jarria:

Nai dozula, Fr. Jose
zortziko barrijha?
Beste on bat imiñi, ta
or dozu erdijha?

Uskeria baiño ezta, baiña Uriartek H kenduta, J hutsa kopiatuko dau eta arrija eta erdija idatziko. Eta ainbat lekutan dator idazkera ori, hatxedun ori, Eusebio Mariaren bertsoetan: jharri, jhaso, jhagi, epaijha, jhosi, bihotz, errukijha, eta olakoak idaztea da aren ortografiaren ezaugarrietako bat eta Uriarteren kopian bein edo beste baten baiño ezta agertzen.

Orrez gaiñera, Azkue aitaren euskereari Uriartek bereak zituen gramatika-lege batzuk ezarri deutsoz, olerkariaren forma batzuk zuzenduta. Eusebio Mariak aurrez erabilten zituen Bizkaian eta Gipuzkoan leku askotan ondo sartuta dagozan deklinabideko lege batzuk: andrean, gizonan, mutillan, gizonantzat, andrearen, gizonaren, mutillaren, gizonarentzat eta olako era osoagoen orde. Uriartek orretan bere eskua sartu dau, bertsoaren neurria bera be kontuan artu barik. Eta bein eskua aurreregi joan jakola esango neuke. Ziri-bertso bat Azkue semeak onetara dakar Parnasorako Bidea-n:

Eskribauen egia
Eta andrean negarra
eta isila atso zarra
guzurra (da) guztia.

Azkue semeari or uts batek urten eutsan guk taket artean jarri dogun (da) ori. Manterolak be bardin dakar, edo ia bardin andrean orde. andrian jarrita. Baiña, antza, aita Uriartek erabili eban kopian edo orijinalean ez etorren ez andrean ez andrian, beste itz itsusitxoagoa baiño: Enbrian negarra, Zarauzko manuskritoan datorren lez. Eta zer egin dau? Zantarregi eritxi deutso itz orri, eta euskera garbiagoan jarri gura izan dau eta itzik luzeenera jo dau orretarako: Enbrian negarra emakumiaren negarra egin deusku, bertsoa luzeegituz. Andrian ikusi baleu, andriaen egingo euskun, beste guztietan egin dauan lez; gizonaen-mutillaentzat eta olan.

Beste ikutu bat Uriartek orijinalari egiña: Bizkaian eurrez erabili izan diran eta erabiltzen diran formak doguz: antziñarik ona, atzorik ona eta iñok

ez dau esango oso jatorrak ez diranik, bearbada jatorrenak. Eta ez Bizkaian bakarrik, beste euskalki batzuetan, urriñenkoetan be erabili izan da -ti edo -di atzizkia onela: gure aurreti, ganeti, atzeti, gaitr, orregaiti, zergaiti edo zegartr; andi, orti, orrelantxe, batetik -rik eta bestetik -ti itza beste barik. Uriarte beste oitura batera eginda dago, eta bere gramatikalegeetara ekarriko dau Eusebio Mariaren euskera: antxiñatik ona, aurretik, artetik, agaitik, andik eta olan, forma orreik jatorragotzat edo zuzenagotzat artuta edo. Azkue semeak egin eztauana.

Beste itz batzuetan be Eusebio Mariarenak zuzentzera egin dau aita Uriartek. Eusebio Mariak non nai eta noz nai erabiltzen ditu onako itzok: Azkana, igaz egin. Aita Uriartek zuzendu egiten deutsoz, azkena, iges egin. Azkue semeak egin eztauana, emen be. Bere seme-eskubideak ez ditu orrenbesteraño eroan. Uriartek seme-eskubiderik eztau gogoan izan, baiña bere ikututxoak egin barik ezta gelditu olerkariaren bertsoak kopiatzerakoan, eta ez deusagu orretan pekaturik, ez larririk ez txikirik ezarriko, bere eskuetan gordetako egiñak zituen eskero kopiak, eta ez argitara emoteko. Bere euskalzaletasunak eragiñiko lana zan egin ebana.

Irakurlea: Puri Zugasti andereñoa (Ibarrangelu)